

Oihana Iguaran Barandiaran (Villabona-Amasa, 1991) gogotsu dago Illunbeko oholtzara igotzeko, hirugarren finala izango du aurtengoa eta «egoeraren jabe» sentitu nahi du.

Azken saioa irabazita sailkatu zara finalera.

Orain arteko bidea polita izan da, gogoz egon naiz noiz kantatuko, bertso eskolako kideak ni baino lehen hasi ziren txapelketako saioetan eta pixka bat zain egon naiz, sartzeko gogoz. Irunen oso gustura ari-tu nintzen, itxaronaldia pixka bat luze egin zitzaidan. Arrasatera tentsio horrekin joan nintzen, gauza batzuetan asmatu genuen, beste batzuetan ez horrenbeste, eta orain, gauzak hobeto egiteko gogoz nago.

Finalerdietako ariketak zorrotzak ziren?

Eraiki beharra eskatzen zuten ariketa berriek. Gainera, ez zen ofizio bat bakarrik, bat baino gehiago ziren berezitasun hori zutenak, zehaztea bertsolariengan uzten zutenak, eta hor erabaki onak eta txarrak denok hartzen ditugu. Nik ez nuen sufrimendutik bizi izan, baina saio aurretik bazenekien hor bazela gako bat. Adibidez, zortziko txikian launa bertso izan genituen, eta hori asko eskertzen den gauza bat da; ematen du aukera garatzeko eta ñabardura ezberdinak atara ahal izateko. Eta finala ere neurri libreko ariketarekin hasiko da, eta nik, behintzat, eskertzen dut.

Plazako jardunera hurbiltzen diren ariketak izatea eskertzen duzu?

Bai, baina batez ere iraupenagatik nion. Pentsatzen dut txapelketak bertso kopuru muga-tua behar duela neurtu ahal izateko; plazan guk malgutatsun hori izaten dugu, zenbat bertso, neurria eta doinua. Finallean ere erabakitzeke aukera emango zaigu, eta nahiz eta hurrengoak erabakita egoteak baldintzatzen duen, nire ustez interesgarria da, margen bat ematen duelako gaiarekiko erabaki zehatzagoak hartu ahal izateko.

Hausnarketari eta aktualitateari bide eman ohi diozu.

Batetik, bizi garen munduan joera batzuk eta kezka batzuk baditugu, bai guk baita publikoko jende askok ere. Mikrofono bat aurrean daukagun momentutik bada modu bat eragiteko edo aukera bat behintzat, eta nik zentzu horretan ardura bat sentitzen dut. Ez dut uste nire hausnarketa maila gorago dagoenik entzule askorena baino, alderantziz. Baina guk badugu mikrofono bat, badugu bide batzuk ateratzeko aukera, askotan ez da gai batzuk nora eramane, baizik eta bistara ekartze hutsa, eta nik beste bertsolariei hori eskertzen diet asko, eta ni ere ahalegintzen naiz ekarpen bat egiten.

Doinu berria plazaratu zenuen Arrasaten, baita 2022ko Txapelketa Nagusian ere, gustuko duzu doinuen jolas hori?

Txapelketa garaian eta bakar-kakoetan nahiko molde irekiak izaten dira, baditu ezau-garri batzuk istorio bat garatzea eskatzen dizutenak, eta uste dut hor bertsolari asko eta asko ibiltzen garelako gure neurriko soinekoaren bila, gure estiloari edo momentu horretan daukagun joerari ondoen zein doinu emango

Doinu berria plazaratu zenuen Arrasaten, baita 2022ko Txapelketa Nagusian ere, gustuko duzu doinuen jolas hori?

Txapelketa garaian eta bakar-kakoetan nahiko molde irekiak izaten dira, baditu ezau-garri batzuk istorio bat garatzea eskatzen dizutenak, eta uste dut hor bertsolari asko eta asko ibiltzen garelako gure neurriko soinekoaren bila, gure estiloari edo momentu horretan daukagun joerari ondoen zein doinu emango



OIHANA IGUARAN BARANDIARAN

«Askotan ez da gai batzuk nora eramaten ditugun, bistara ekartze hutsa baizik»

zaion pentsatzen. Bakarkako ariketa lantzeko nire modua batzuetan bada emozionatzen nauen doinu bat hartu eta horri buelta bat ematea.

2019ko finaleko zure agurrak zion: «...Zabiltzatenei bertso eskolatan, segi bultzaka, lehengo modetan, hari tira ta zabaltzen...». Zein funtzio betetzen dute bertsoaren ekosisteman zure ustez?

Nik uste dut bertso eskolei, eta kasu honetan sorrerako horiei, gauza asko zor dizkiegula; batetik, jardun honen iraupena, zabalkundea eta esparru zein jende berriarengana iritsi ahal izatea. Horrek dakar jende desberdinaren ahotsak bertso eskolatera eta plazara ekartzea, oraindik bide luzea dugu egiteko, oraindik jende asko falta da halere.

Bertso eskolek guztion bizitzetan duten erreferentzialtasuna izugarria iruditzen zait, bertsoetik urrunago zaudenean ere badira bueltatzeko espazio, ardatz bihurtzen direnak, hori izugarria da. Euskararen bueltan zedarrituak dira, hizkuntzaren lanketarekin batera zehar lerroan hausnarketa eta gogoeta sustatzen du, jolasaren bueltan betiere, baina nik uste badela jardun bat gogoe-tara bultzatzen gaituena. Niretzat sekulakoa da pentsatzea hainbeste gaztetxo hizkuntza landu ahala ari direla jartzen agian sekula pentsatu ez dituzten roletan, urrun sentitu dituzten errealitate batzuetan. Nik hain gaztetatik begiak zabaldu izana bertsolaritzari zor diot.

Zein gorputzaldirekin edo asmorekin iritsi nahiko zenuke larunbateko saiora?

Izugarrizko gogoia dut, izugarrizko saioa egin nahi dut. Inoiz ez dut egin final bat “uau ederra” esateko bezalakoa, eta gogo handia dut hori egiteko, baita finala kontzienteago bizitzeko ere. Lehenengoa pixka bat ilusiotik eta ezin sinetsitiki bizi nuen, duela bost urte ez nintzen iritsi nire baldintza onenetan pertsonalki, eta aurtent, nire buruari zor diot kontziente eta egoeraren jabe sentitzea, eta izugarrizko gogoia dut saio oso ona egiteko.